



JARRAIBIDEAK, HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN 2022KO ABENDUAREN 19KO AGINDUAREN BIDEZ DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZEDURETAN HAUTATUTAKO IZANGAIEK 2024-2025 IKASTURTEAN EGIN BEHARREKO PRAKTIKA-FASEA ARAUTZEN DUTENAK. AGINDU HORREN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IRAKASLEEN KIDEGOETAN SARTZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA AIPATUTAKO KIDEGOETAN SARTZEKO OHIKO LEHIAKETA-OPOSIZIOAREN BIDEZ.

Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuetarako deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren IX. kapituluak (2022ko abenduaren 28ko EHAA) jarraibide hauen tituluan aipatutako funtzionarioen irakaskuntza-praktiken faseko oinarriko baldintzak ezartzen ditu.

Arau horren 14.1 oinarrian ezarritakoa betez, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren 2024ko ekainaren 14ko Ebazpenaren bidez arautzen da praktika-fasea.

Aurrekoa garatzeko, jarraibide hauek Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak ematen ditu, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikulua (2021eko martxoaren 5eko EHAA) ematen dizkion eskumenetan oinarrituta, eta haien helburua da aipatutako praktikaldiaren erregulazioa osatzea.

1. Praktika-fasea 2024-2025 ikasturtearen hasieran hasiko da, eta, **salbuespen gisa, 3 hilabete eta egun bateko iraupena izango du, zuzeneko irakaskuntzan**. Beraz, **2024ko irailaren 1etik 2024ko abenduaren 1era arte, biak barne**, egingo da, gutxienez 2/3ko lanaldiarekin.
2. Praktiketako funtzionario izan diren ikastetxe guztietan, eta horietako bakoitzerako, zuzendariak irakasle tutore bat proposatuko du. **Irakasle horrek karrerako funtzionario izan beharko du beti**, eta haren tutoretzaz eta ebaluazioaz arduratuko da.
3. Praktika-fase honen salbuespenezko ezaugarriak eta iraupena kontuan hartuta, tutoretza hori dagokion **Didaktika Saileko buruak** gauzatuko du, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Kidegoko eta Musika eta Arte Eszenikoko Kidegoko espezialitate guztietan.
4. **Lanbide Heziketako ikastetxeetan**, irakaskuntza-espezialitateari, prestakuntza-zikloari edo lanbide-arloari dagokiona izango da tutoretza beteko duen departamentuburua, praktiketako funtzionarioak zuzeneko irakaskuntza esleituta duenean lanbide-modulu gehienetan.
5. Aurreko hiru irakasle-kidegoei dagokienez, eta kasuan kasuko departamentu-burua karrerako funtzionarioa ez bada, ikastetxeko zuzendariak proposatuko du praktiketako tutore gisa esperientziadun pertsona bat, ikastetxean destinoa duten karrerako funtzionarioen artean aukeratua, eta, ahal dela, espezialitate bereko titularra edo, halakorik ezean, antzeko beste batekoa.
6. Maisu-maistren kidegoan, irakasle tutorea ikastetxean destinoa duten eta, ahal dela, izangaiak praktikak egiten dituen espezialitatean gaitutako karrerako funtzionarioen artean hautatuko da, edo, halakorik ezean, ikasketak-buruaren artean.
7. Izendapen horren berri emango zaio Hezkuntza Ikuskaritzari ikasturteko **lehen astean (2024ko irailaren 6ra arte, egun hori barne)**, Kalifikazio Batzordeari helarazteko. Era berean, horri buruz aurreikusi gabeko edo aparteko edozein gorabehera berehala jakinarazi beharko zaio Hezkuntza Ikuskaritzari, Kalifikazio Batzordeari helaraz diezaion. Batzorde horrek ikastetxean destinoa duten karrerako irakasle funtzionarioen artean hautatutako pertsona bat ebartziko du eta tutore izendatuko du, plantillaren benetako aukerak eta egokitasun handiagoa kontuan hartuta.



8. Gainera, praktiketako funtzionarioari zereginak esleitzean, kontuan hartu beharko da haren jardunak aukera eman behar duela Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren 2024ko ekainaren 14ko Ebazpenaren I. eta II. eranskinetan jasotako alderdi guztiak ebaluatzeko. Horretarako, ikastetxeko irakasleen ikasturte-hasierako antolaketan ahalegina egingo da irakasleen eskola-orduak ahalik eta **eskola-ordu gehien** izan ditzaten oposizioko **espezialitateari** legez esleitutako arlo, ikasgai, esparru eta lanbide-moduluetan.
9. Praktiketako funtzionarioek **bi ikastetxetan edo gehiagotan** ematen badute irakaskuntza, administrazio-arloan atxikita dauden ikastetxeko tutoreak eta zuzendariak egingo dituzte dagozkien txostenak.
10. Ezarritako praktikaldia osorik edo, edozein kasutan, **eskola-egunen % 90** edo gehiago betetzea eragozten duen edozein gorabeheraren ondorioz, praktika-fasea ezin izango da ebaluatu 2024ko abenduaren 1ean oro har ezarritako datan.
Hala ere, gerora sortutako eta behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arrazoiengatik (norberaren gaixotasuna edo istripua, odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senitartekoaren gaixotasun larria edo heriotza –edo urrunagoko gradukoa, elkarrekin biziz gero– eta seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko edo harreragatiko baimenetan), kontuan hartu ahal izango da 2024ko irailaren 1etik abenduaren 1era bitarte destinoko zentroaren eskola-egutegi ofizialean bildutako eskola-egunen % 10eko gehieneko absentsia metatua.
11. Praktika-fasea 2024ko abenduaren 1ean amaitzen dutenek eta ebaluazio positiboa lortzen dutenek karrerako funtzionarioaren izaera lortuko dute Hezkuntzako sailburuaren dagokion izendapen-aginduaren bidez, abenduan bertan eta **2024ko abenduaren 2tik aurrerako ondorioekin**.
12. Aurreko 10. puntuari jasotako baldintza betetzen ez bada, ordea, eta lanpostura itzultzen den unetik aurrera, eraginpeko pertsonak praktikak egiten jarraitu ahal izango du amaitu arte, dagokion ikasturtean zehar eta beranduenez 2025eko ekainean amaitu arte. Kasu horretan, eta praktika-fasearen nahitaezko ebaluazio positiboa egin ondoren, karrerako funtzionarioaren izendapena geroago egin beharko da, eta **2025eko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak**.
13. Era berean, praktika-fasea arautzen duen Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren IX. kapituluari horretarako jasotako arrazoiren batengatik, praktika-fasea 2025-2026 ikasturtera atzeratzea eskatu dutenek 2025eko irailaren 1etik abenduaren 1era egin beharko dituzte, biak barne, eta, benetan egin eta ebaluazio positiboa jaso ondoren, karrerako funtzionario bihurtuko dira **2025eko abenduaren 2tik aurrerako ondorioekin**.
14. Deialdi honen xede diren praktiketako funtzionarioen ebaluaziorako aginduzko dokumentu guztiak eskuragarri egongo dira ebaluazio hau kudeatzeko aplikazio berrian (aurrerantzean, HIKU), eta behar bezala bete eta bide horretatik bakarrik bidali beharko dira.
15. Praktika-aldi osoa amaitu ondoren, **2024ko abenduaren 5a baino lehen**, tutoreen proposamenaz gain, ebaluazio-txosten hauek kargatuko dira HIKU aplikazioan:
 - Tutorearen eta zuzendariaren ebaluazio-txostenak, behar bezala beteta (item guztiak baloratu dira, salbuespenik gabe) eta sinatuta.
 - Hezkuntzako Ikuskaritzak ikus-onetsitako txostenak, irakasle tutorearen eta zuzendariaren ebaluazio-txostenetan oinarrituta.
 - Hezkuntzako Ikuskaritzaren txosten espezifikoak, zuzeneko esku-hartzea behar izan duten kasuei buruzkoak.

Txosten horiek behar bezala beteta eta sinatuta egon beharko dute, HIKU aplikazioaren bidez bidaltzeko. Gainera, ikastetxean gordeko dira tutoreak eta zuzendariak behar bezala



sinatutako paperezko txostenak, eta Hezkuntzako Lurralde Ikuskaritzaren esku geratuko dira, Kalifikazio Batzordeak eskatuz gero bidaltzeko.

Gainera, informazio gisa, Hezkuntza Sailaren webgunean ("lan-arloak" > Hezkuntzako Ikuskaritza > Ikastetxeentzako dokumentuak > Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak/DBH eta HHE > Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa) aurki daitezke irakasle-kidego guztientzako txosten-ereduak. Eredu horietan jasotzen dira Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren I. eta II. eranskinetan ezarritako praktika-fasean ebaluatu beharreko alderdiei dagozkien adierazleak.

16. Praktika-fasean zehar, ikastetxeko zuzendariak **ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio Hezkuntza Ikuskaritzari edozein gorabehera edo inguruabar**, baldin eta, bere ustez, bere ikastetxean destinoa duten funtzionarioen praktika-fasea behar bezala garatzeari edo ebaluatzeari eragin badiezaioke, eta ondoen dagokion esku-hartze espezifikoa eskatu beharko du. Kasu horietan, Kalifikazio Batzordeak esku-hartze espezifikoa eskatu ahal izango dio Hezkuntza Ikuskaritzari.
17. Praktikak gainditzeko, **nahikotasun-graduazio bat lortu beharko da** ikastetxeko zuzendariaren, esleitutako tutorearen eta erreferentziazko ikuskatzailearen txostenetako **adierazle guzti-guztietan**. Horietakoren baten balorazioa nahikoa ez bada, Kalifikazio Batzordeak, ebazteko, txosten osagarri bat eskatuko dio Hezkuntza Ikuskaritzari, ezarritako prozeduraren arabera.
18. Kalifikazio Batzordea da, jasotako txostenetan oinarrituta, funtzionarioen praktika-fasea ebaluatzeko eskumena duen organoa. Aldi hori **"gai" edo "ez gai"** kalifikatuko du, eta gainditzeko edo ez gainditzeko proposamena egingo dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 27a

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO